2018ko Iraila-Abendua
Septiembre-Diciembre 2018

Ikuskizunen egitaraua | Programa de espectáculos

# ermuantzokia



IRAILAREN **21**ean SEPTIEMBRE

# Curso de interpretación. Agustín Jiménez

**A las 22:15ean / Sarrera | Entrada: 10 €**

Egile eta antzezlea / **Guion e interpretación: Agustín Jiménez**
Iraupena / **Duración: 80 min.**

Betidanik artista izan nahi izan duzu. Ezazu ukatu. Arrakasta lortzera eta mundua jatera etorri zara, nahiz eta kolesterolez eta larregi asetzen duten gauzez beteta dagoen. Berdin da.

Gaur duzu aukera. Agustín Jiménezek eskolak eman dizkizula esan ahal izango duzu. Gaur profesional baten moduan barre egiten ikasiko duzu; barre makal eta konpromisozkorik ez.

Etor zaitez. Mesedez.

Ikuskizuna da? Ere bai. Zurekin datorren pertsona ezin delako aspertu!

Eta monologoak? Baita ere.

Denetik dago. Prezio horretan, gainera? Zoratzekoa!

Siempre quisiste ser artista. No lo niegues. Has venido para triunfar y comerte el mundo aunque esté cargado de colesterol y cosas que llenan. Da igual.

Hoy es tu día. Podrás decir que Agustín Jiménez te dió clases.

Hoy aprenderás a reír como profesional. Nada de risitas flojas y de compromiso.

Ven. Haz el favor.

¿Es un show? También lo es. Porque tu acompañante no se puede aburrir.

¿Y monólogos? También.

Hay de todo. ¿Y por ese precio? Una locura.





IRAILAREN **28**an SEPTIEMBRE

# Juntos. Kiti Manver, Melani Olivares, Gorka Otxoa e Inés Sánchez

**A las 22:15ean / Sarrera | Entrada: 15 €**

Egilea / **Autor: Fabio Marra** Zuzendaria / **Dirección: Juan Carlos Rubio.** Iraupena / **Duración: 85 min.**

Isabel pisu apal batean bizi da, edo hobeto esanda, biziraun da, Miguel bere semearekin, gazte desgaitu, oldarkor eta eskuzabala. Sandra, alaba txikia, exekutibo arrakastatsua eta duela hamar urte baino gehiago alde egin zuena, bisitan dator ezustean, eta hankaz gora jarriko ditu familiaren harreman konplexuak, samurtasunez beteriko ustekabeko gertaera harrigarriak, zorren bat eta umore asko eta asko kateatuz. Komedia dibertigarria da, "normaltasuna" zer den eta "familia" delako mundu partikular horretan sakontzen duena.

Isabel vive, o mejor dicho, sobrevive, en un modesto piso junto a su hijo Miguel, un joven discapacitado, impulsivo y generoso. La inesperada visita de su hija menor, Sandra, ejecutiva de éxito y ausente desde hace más de diez años, hará que las complejas relaciones familiares se pongan patas arriba, encadenando una sucesión de inesperados y sorprendentes acontecimientos rebosantes de ternura, alguna que otra deuda pendiente y mucho, mucho humor. Una divertida comedia donde se cuestiona qué es la "normalidad" y se ahonda en ese particular mundo que llamamos "familia".



URRIAREN 5ean OCTUBRE

# Revólver en acústico. (gira 25 años de básico)

A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 15 €



"25 AÑOS DE BASICO" TOUR hirukote formatuko kontzertu akustikoa da, Carlos Goñik bere ahots eta gitarrarekin, baxu-jotzaile batekin eta perkusio-jotzaile batekin eskainia. Sorpresa batzuk izango dira, BASICO I albumeko arrakastak eta ezinbesteko beste gai batzuk gogora ekarriko dizkigula. Hauxe da REVOLVER taldearen karrerako gaien nolakotasuna eta taldearen betiko arrakasta handiak ezagutzeko modurik onena eta Carlos Goñi aurrez aurre, bitartekorik gabe, ezagutzeko aukera paregabea.

"25 AÑOS DE BASICO" TOUR ofrecerá un concierto acústico en formato trio con Carlos Goñi con su voz y la guitarra junto a un bajista y un percusionista

y algunas sorpresas que pretende rememorar los éxitos del BASICO I y otros temas inevitables. Sin duda la mejor forma de conocer el ADN de cada uno de los temas que conforman la carrera de Revólver, así como sus grandes éxitos de toda la vida, y ser protagonista del encuentro cara a cara y sin intermediarios con Carlos Goñi.

URRIAREN **12**an OCTUBRE

ANTZERKIA / TEATRO

# Espacio disponible. Perigallo Teatro

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10€**

Egile eta antzezleak / **Autores/as e intépretes: Celia Nadal y Javier Manzanera**
Zuzendaria / **Dirección: Antonio C. Guijosa** Iraupena / **Duración: 75 min.**

Palmira eta Jenaro, senar-emazte erretiratu bat, semea bisitan noiz etorriko zain daude loezin-gau gogoangarri batean. Semea, erbestean den kooperantea, gurasoak berarekin bizitzera eramateko asmoz dator, merezi duten arreta eman ahal izateko. Bisita honek gatazka dibertigarria sortuko du bikotearengan, norbere espazioa defendatzearen eta etekinaren gizarte honetan ezertarako balio ez izateko sentsazioaren inguruan.

Komedia zuhur eta egungo honek itxuraz ezertarako balio ez duten baina izugarri ederrak diren gauzen boterea aldarrikatzen du.

Palmira y Jenaro, un matrimonio de jubilados, esperan la visita de su hijo durante una memorable noche de insomnio. El hijo, un cooperante expatriado, viene con la intención de llevárselos a vivir con él y así poder atenderles como merecen. Esta visita va a desencadenar en la pareja un divertido conflicto en torno a la defensa del propio espacio, y su sensación de inutilidad en esta sociedad del beneficio.

Una comedia lúcida y actual que reivindica el poder de las cosas aparentemente inútiles pero tremendamente hermosas.



URRIAREN **19**an OCTUBRE

MUSIKALA / MUSICAL (Euskaraz)

# Forjarien kanta. Eibarko Koro Gaztea eta Forjarien Banda

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 8€**

Egilea / **Autor: Juanma Cano** Zuzendaritza artistikoa / **Dirección artística: Maite Lorenzo eta Juanma Cano**
**Dirección musical/** Zuzendaritza musikala: **Xabier Oruesagasti eta Elena Martín.** Koreografía / **Coreografía: Jone Lahidalga eta Sofia Matxin** Iraupena / **Duración: 75 min.**

80. hamarkada. Ermua Herriko empresa batek behin betiko ixteko arriskua bizi du, lursail horietan luxuzko etxebizitzak eraiki behar dituztelako. Bertako langileek ordea, enpresaren errentagarritasunaz jabetuta eta beraien burua langabeziaren mehatxupean ikusiz, direnak eta bi egingo dituzte lanean jarraitzeko irtenbideak aurkitzeko. Topatuko al dute konponbiderik kale gorrian geratu aurretik.

FORJARIEN KANTA Ermuarren izaera islatzen duen musikala da eta genero horretako obrarik ezagunenetako abestirik entzutetsuenak berreskuratzen ditu.

Ermua, años 80. Una empresa ermuarra corre el riesgo de ser cerrada para construir un gran edificio de viviendas de lujo.

Los/as trabajadores/as, que insisten en la rentabilidad de la empresa, buscan una solución ante la amenaza del desempleo.

¿Lograran encontrarla antes de quedarse en la calle?

FORJARIEN KANTA es un musical que refleja el espíritu de los/as ermuarras y en el que se rescatan algunas de las canciones más conocidas de algunos de los musicales más célebres.



URRIAREN **20**an OCTUBRE

HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA / ESPECTÁCULO INFANTIL (Euskaraz)

# Kontu kantari, 2. La enana naranja

**A las 17:00etan | Sarrera/Entrada: 4 €**

Testua / **Texto: Mikel Pikaza eta Jon Koldo Vázquez** Zuzendaria / **Dirección: Jon Koldo Vázquez** Musika / **Música: Roberto Castro "Boti", David Nanclares eta Sandra Fdez. Aguirre** Abeslaria / **Cantante: Sandra Fdez. Aguirre** Musikaria / **Músico: Roberto Castro "Boti"** Txontxongiloen eragileak / **Marionetas: Marta Álvarez eta Itziar Fragua** + 3 urte / **años**

KONTUKANTARI 2-k betiko euskal kantak eskaintzen dizkizue erritmo ezberdinetara eramanez; Txikiek ikas eta nagusiek ahaztu ez ditzaten. Nanu, Granu eta Kanuto txango berri bat egiteko prestatzen ari dira. Arratsalde honetan, mendi tontor gainera igo behar dute, baina aldapeko sagarraren adarraren puntan aurkituko dute loretxo bat eta...TXIST! Baxuago abestu!! Haurtxo polita sehaskan dago zapi zuritan txit bero..

KONTUKANTARI 2 ofrece las canciones vascas de siempre, trasladándonos a ritmos muy diferentes, para que los y las más pequeñas las aprendan y los/las mayores no las olviden. Nanu, Granu y Kanuto se están preparando para hacer una nueva excursión: esta tarde van a subir a la cima del monte, pero en la punta de la rama del manzano de la cuesta encontrarán un flor...CHSSSSSS! Cantad más bajo que el bebé está en su cunita calentito entre sus sábanas blancas... (todas las frases son parte de conocidas canciones populares vascas)..




URRIAREN **20**an OCTUBRE

CONCIERTO DE BLUES KONTZERTUA

# A contrablues

**A las 20:00etan | Sarrera/Entrada: 8 €** | **Lobiano Kultur Gunean**

Bizitasuna, ausardia, konpromisoa. A Contra Blues Europan egun den bandarik onenetakoa da. Hala adierazten du European Blues Challenge 2014aren irabazle izan, hamabi urteko musika-karrera egin, zazpiehun kontzertu baino gehiago eman eta sei disko egin izanak. Hasi zirenetik ez diote bidaiatzeari eta agertoki ezberdinetan jotzeari inoiz utzi, Bartzelonako kaleetatik hasi eta Europako jaialdirik handienetara arte: Luxemburgo, Cerdanyola, Frantzia, Polonia,Norvegia, Suitza, Portugal, Danimarka...

Vitalidad, audacia y compromiso. A Contra Blues es sin duda una de las mejores bandas del panorama europeo actual. Les avala, entre otros, el galardón de ganadores del European Blues Challenge 2014, doce años de carrera musical, más de setecientos conciertos y seis trabajos discográficos. Desde su debut no han parado de viajar y de tocar en los más variados escenarios; empezando en las calles de Barcelona hasta llegar a los grandes festivales europeos (Luxemburgo, Cerdanyola, Francia, Polonia, Noruega, Suiza, Portugal, Dinamarca...) .



# Izaro

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10€**

Izarok otsailean argitaratu zuen “Eason” bere bigarren albuma, urteko diskorik itxaroenetakoa. Disko bikaina, zoragarria besterik gabe. Martxoan bere aurkezpen-itzuliari ekin zion antzoki handietatik hasita: Arriaga Antzokian eta Victoria Eugenian zehazki, sarrera guztiak saldu zirelarik. Hortik aurrera Madril, Bartzelona, Galizia, Mexiko... Orain Ermua Antzokira dator bere ahots apartarekin eta abesti xarmagarriekin atsegin ematera.

Izaro publicó en febrero “Eason”, su segundo album, uno de los discos más esperados del año. Un disco luminoso y simplemente maravilloso. En marzo inició su gira de presentación en los grandes teatros. En concreto, en el Teatro Arriaga y el Victoria Eugenia, con todas las entradas vendidas. A partir de ahí, Madrid, Barcelona, Galicia, Mexico.... Ahora recala en el Ermua Antzokia a deleitarnos con su extraordinaria voz y sus cautivadoras canciones.





AZAROAREN **9**an NOVIEMBRE

# Crímen y telón. Ron Lalá

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 15 €**

Egilea / **Autor: Álvaro Tato** Zuzendaria / **Dirección: Yayo Cáceres** Antzezleak / **Intérpretes: Juan Cañas, Iñigo Echevarría, Fran García, Miguel Magdalena y Daniel Rovalhar.**
Iraupena / **Duración: 90 min.**

Ikusle maiteok: atxilotuak zaudete lehen graduko arte-hilketa baten susmagarri, konplize edo lekuko izateagatik. Eskubidea duzue barre egiteko, negar egiteko, hunkitzeko, abestien erritmoari jarraitzeko eta Crimen y Telón honen amaiera inori ez esateko. Antzerkia hil da eta Noir detektibeak hiltzailea aurkitu behar du Artearen Kontrako Agentziak haren iragan ilunaren sekretua argitu baino lehen. Horretarako, Antzerkiaren historian zehar egia ezkutuen bila joango da, pertsonaia misteriotsu sare bat itzalean azpijokoan ari den bitartean... Antzerki unibertsalari genero beltzeko thriller tankeran eginiko omenaldia da, gertu dugun etorkizunean girotua: arteak debekatuta daude, gure planeta, Hiri Lur bihurtua, adimen artifizial batek gidatzen du drone-armada batekin. Hiltzailea edozein izan liteke, zuek ere bai ikusle maiteok, erlojuz kontrako ikerketa bat da honakoa.

Estimado público: quedan detenidos/as como sospechosos/as, cómplices o testigos de un articidio en primer grado. Tienen derecho a reír, llorar, emocionarse, seguir el ritmo de las canciones y no desvelar a nadie el final de Crimen y telón . El Teatro ha muerto y el detective Noir tiene que descubrir al asesino antes que la Agencia Anti Arte desvele el secreto de su oscuro pasado. Para ello recorrerá la historia del Teatro en busca de verdades ocultas mientras una red de misteriosos personajes conspiran en la sombra... Un homenaje al teatro universal con forma de thriller de género negro, ambientado en un cercano futuro en que las artes están prohibidas y nuestro planeta, convertido en Ciudad Tierra, es liderado por una inteligencia artificial con un ejército de drones. Una investigación contrarreloj en que el asesino podría ser cualquiera. Incluso ustedes, amado público.





AZAROAREN **16**an NOVIEMBRE

BERTSO JAIALDIA

# Bertso jaialdia

A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10 €

Bertsolariak: **Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Igor Elortza, Xebastian Lizaso eta Maddalen Arzallus..**

Gai jartzailea: **Maite Berriozabal** Antolatzailea: **Euskal Birusa**

San Martín Azokaren inguruan ohitura denez, lehen mailako bertsolariak izango ditugu Ermua Antzokian, hitz-jolasak egiten eta ikuskizun bikaina eskaintzeko prest.

Como es habitual, en torno a la Feria de San Martín, un conjunto de bertsolaris de primer nivel se darán cita en el Ermua Antzokia, dispuestos/as a jugar con las palabras y ofrecernos un magnífico espectáculo.








AZAROAREN **17**an NOVIEMBRE

CONCIERTO DE JAZZ KONTZERTUA

# Lurpekariak

A las 20:00etan | Sarrera/Entrada: 8 €

Lobiano Kultur Gunean

Free jazz eta sunpriñua? artzai kantuak eta inprobisazio askea?

Euskal herri musika eta pentsamoldearen mamian oinarritutako ariketak; hirukote bikoitz honek soinugune eta ehundura aberatsak sortzeko aukera ematen du; Talde inprobisazioa akuilu gisa, musika norabide anitzetan ibiltzeko. Erro sakondun batbateko musika.

Matana Roberts, Beñat Axiari, Steve Coleman, Mikel Laboa... ren moduko artisten eragina nabari da bertan.

¿Free-jazz y sunpriñu? ¿canciones de pastores y libre improvisación?

Estructuras basadas en la síntesis de elementos de la música vasca tradicional y su pensamiento, este doble trío propicia la creación de ricas texturas y espacios sonoros. La improvisación colectiva da lugar a música que camina en varias direcciones... Música improvisada con profunda raíz. Con influencia de artistas como Matana Roberts, Beñat Axiari, Steve Coleman, Mikel Laboa...



# Festival de SANTA ZEZILIA Jaialdia.

Alboka Musika Eskola & Txindurri taldea

**A las 22:15etan | Sarrera/Entrada: 3 €**

Musikaren zaindariaren omenez egin ohi den jaialdia, Alboka Musika Eskolako ikasleek eta Txindurri taldeko dantzariek eskainia.

Tradicional festival en honor a la patrona de la música, protagonizado por el alumnado de la Escuela de Música Alboka y los/as dantzaris de Txindurri taldea,







# Euria. Markeliñe

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10 €**

Egile eta zuzendaria / **Autoría y dirección: Markeliñe**
Antzezleak / **Intérpretes: Fernando Barado, Natalia García eta Ioar Fernández** Iraupena / **Duración: 60 min.**
**+** 5 urte / **años**

"Euria ari du... Bo protagonista triste dago, M. bikotea, galdu duelako. Haren oroimenari lotuta bizi da: etxeko esekitokian dagoen haren aterkia, bere konpainia bakar eta ezinbesteko bilakatu dena. Egun batean apurtutako eta bertan behera utzitako beste aterki bat aurkituko du kalean. Etxera eramatea erabakiko du, konpontzeko. Hiru dira dagoeneko etxean: bi aterkiak eta bera. Eta bizikidetza konplexuagoa eta gorabeheratsuagoa da... ... Atertu egin du.

**2017.ko urteko FETEN Saria: haurrentzako ikuskizun onena.**

Llueve... y Bo, el protagonista, se encuentra triste porque ha perdido a M., su pareja. Vive atado a su recuerdo: su paraguas colgado del perchero de casa se ha convertido en su única e imprescindible compañía. Un día encuentra en la calle otro paraguas roto y abandonado y decide llevárselo a casa para arreglarlo. Ya son tres en casa: los dos paraguas y él, y ahora la convivencia es más compleja y agitada... pero ya no llueve.

**Premio FETEN de 2017 al mejor espectáculo infantil.**



# Txarriboda. Hika

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10€**

Egilea eta zuzendaria / **Autora y directora: Agurtzane Intxaurraga** Antzezleak / **Intérpretes: Patxi González, Iñaki Maruri, Kepa Errasti, Iñigo Aranbarri, Sandra Fdez. Agirre eta Juanjo Otero.** Iraupena / **Duración: 80 min.**

Mireiak eta Imanolek ezkongai bikote perfektua osatzen dute. Zorionaren irudi dira. Ezkondu egin dira gaur eta Patxi Bilbaok, emaztegaiaren aitak eta Ipertrolako handi-mandiak, antolatu du ospakizun gala. Festa itzela. –"Gaur txerrien antzera, jan, edan eta dantza egitea nahi dut!" Hitz horiekin egingo die harrera gonbidatuei. Guztiak bertan daudela dirudienean, ordea, Txusa azalduko da aretoan. Gizon gorputzean bizi den emakumea da Txusa eta Imanolen aitaren azken bikotea izan zen hura hil artean. Mireiak gonbidatu du ezkontzara. Emakumea atsegin du eta aukera polita iruditu zaio Imanolek Txusa hobeto ezagutu eta bere aitarena gaindu ahal izateko. Baina ezuste hau beste askoren hasiera besterik ez da izango eta ezkontza behar zuenak, Txarriboda izaten amaituko du

Mireia e Imanol son la perfecta pareja de novios. Son la imagen de la felicidad. Hoy se han casado y Patxi Bilbao, padre de la novia y mandamás de Ipertrola, ha sido quien ha organizado la celebración. Una fiesta a lo grande y recibe con estas palabras a las personas invitadas –"Hoy quiero que comáis, bebáis y bailéis como cerdos", pero cuando parece que han llegado todos/as aparece Txusa en el salón. Es una mujer que vive en un cuerpo de hombre y se trata de la última pareja del padre de Imanol hasta que murió. Ha sido Mireia quien la ha invitado a la boda, pues le gusta esa mujer y le parece una buena ocasión para que Imanol la conozca y supere lo de su padre. Sin embargo este imprevisto será sólo lel inicio de muchos otros, de manera que lo que debía ser una boda acaba siendo la comida de la matanza del cerdo.





# Xoel López

**A las 22:15 ean | Sarrera/Entrada: 12€**



Xoel López musikari iberoamerikar independenteen artean kaudimendun eta adierazgarrienena da zalantzarik gabe. Xoel Lópezen musikaren ezaugarri nagusia bere paisaien jatortasuna da. Disko bakoitza sormen-askatasun ariketa bat da eta bere biografiaren kapitulu bat aldi berean. Bere musika libreki mugitzen da pop-rock alternatiboa, folk klasikoa, folklore panamerikarra, hirurogeita hamar urteetako soinuak, gitarra espainiarra eta elektrikoen artean...5 zentzumenetako bakoitzarekin gozatzeko nahasketa perfektua.

Xoel López es sin duda uno de los artistas musicales más solventes y representativos de la escena independiente iberoamericana. La música de Xoel López se define por lo genuino de sus paisajes. Cada disco es un ejercicio de libertad creativa y a la vez un capítulo casi biográfico.. Su música oscila libremente entre el pop-rock alternativo, el folk clásico, el folclore panamericano, sonidos setenteros, guitarras españolas y eléctricas... una mezcla perfecta que casi se puede deleitar con cada uno de los 5 sentidos.

# Anaut

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 8 €**

**Lobiano Kultur Gunean**

Alberto Anaut, 35 urteko madrildarrak trebetasun nabarmena du soul-abeslari, gitarra-jole eta konpositore moduan. Goraka ari den izar bat izanik, etorkizuna bere alde du. Anautek erritmoa, musika, arima eta galdu ezinezko zuzenekoa ditu. "140"ekin eman zuen bere burua ezagutzera, kalitate izugarriko lehen albuma, berak idatzitako gaiak eta Ray Charles handiari omenaldi bikaina biltzen dituena. Anautek soula, rhythm and blues-a eta blues-a nahasten ditu, akustiko eta elektrikoaren nahasketa hobezinarekin.

"Time goes on" bere disko berria aurkeztuko digu, ildo nagusi batek: denboraren joanak dakartzan aldaketak lotutako hamabi abesti biltzen dituena.

Anaut soul-a da, rhythm and blues klasikoan oinarritutako funk zertzeladekin, bere ahots berezia gehitzen diola. Musika beltzaren eragin guztiak aurkituko ditugu, Pamplona eta Amsterdameko kontserbatorioetan elkar ezagutu zuten musikari batzuen galbahetik pasa ondoren.

Alberto Anaut, madrileño, de 35 años, atesora un sobresaliente talento como cantante, guitarrista y compositor de soul. Es una estrella emergente, el futuro está de su parte. Anaut tiene ritmo, música, alma y un directo para no perderse. Se dio a conocer con 140, un primer álbum de una calidad excepcional, con temas propios y un espléndido homenaje al gran Ray Charles. Anaut mezcla soul, rhythm and blues y blues, y una sabia mezcla de acústico y eléctrico.

Presenta su nuevo disco, Time goes on, con doce canciones y un hilo conductor: los cambios que trae el paso del tiempo.

Anaut es soul con pinceladas de funk sobre una base de rhythm & blues clásico a la que añaden una voz propia. Todas las influencias de la música negra pasadas por el tamiz de unos músicos que se conocieron en los conservatorios de Pamplona y Amsterdam.



**ABENDUAREN 21ean DICIEMBRE**

**ANTZERKIA / TEATRO**

# Si no te hubiera conocido.

Marta Hazas, Unax Ugalde, Ana Cerderiña y Oscar Jarque

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 15 €**

**Egile eta zuzendaria / Autor y director: Sergi Belbel**
**Iraupena / Duración: 80 min.**

Gure bizitza patu batez aurrez erabakita dago ala gu gara, bizitzan zehar hartzen ditugun erabakien bitartez, gertaeren bidea definitzen dugunak? Denboran atzera egiterik bagenu eta aukeratutako hura aldatu, egungo berberak izango ginateke ala beste erabaki horiek beste pertsona bat bilakatuko gintuzketen?

Eduardok, Elisa bere emazteaz guztiz maitemindurik, gatazka bat sortuko du nahi gabe. Oskar eta Klara, bere lagunik onenak, laguntzen ahaleginduko dira, baina alferrik. Eduardo halako pentsamendu-nahasketa handian murgiltzen da deboraren data galtzera iristen dela. Bere helburua Elisa iraganean berriz aurkitzea da eta, nola edo hala, hura ez ezagutzea, oraina ezabatu ahal izateko.

Nuestras vidas están predeterminadas por un destino o somos nosotros quienes, con las decisiones que vamos tomando, acabamos definiendo la senda de los acontecimientos? ¿Si pudiéramos viajar hacia atrás en el tiempo y modificar aquella opción elegida, seríamos los mismos que en la actualidad o esas otras elecciones nos habrían convertido en personas distintas?

Eduardo, muy enamorado de su mujer Elisa, provoca involuntariamente un conflicto. Óscar y Clara, sus mejores amigos, intentan ayudarle infructuosamente. Eduardo se introduce en un laberinto de pensamientos que consiguen per¬vertir la fecha del tiempo. Su objetivo es reen¬contrarse con Elisa, en el pasado, y evitar por todos los medios conocerla para, así, borrar el presente



**ABENDUAREN 27an DICIEMBRE**

**HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA / ESPECTÁCULO INFANTIL (Euskaraz)**

# Supituki. Gari, Montxo eta Joselontxo

**A las 17:00etan | Sarrera/Entrada: 4 €**

Iraupena **/ Duración: 60 min. +** 3 urte **/ años**

Hastera doa, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen saioa, beti bezala musika joaz. Baina... arazo handi bat dute buruan: kontratatua zegoen magoa ezingo da iritsi! Hala ere ikuskizunak hasi egin behar du, laguntxoak zain baitaude. Garik magia pixka bat egiten dakienez zertxobait egiten saiatuko da, baina azkenik, supituki, eta Montxo eta Joselontxoren laguntzaz, magia eta algaraz beteriko ikuskizun paregabea sortuko dute. Eta ikuskizun honetan faltako ez dena ere, ikusleriaren parte-hartzea izango da. Azkenean zorionez eta supituki dena konpondu da, eta ordu betez, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen barre, musika, parte-hartze eta algaraz gozatuko dugu.

Empieza la actuación de Gari, Montxo y Joselontxo, con música, como siempre, pero... tienen un gran problema: el mago que han contratado no podrá llegar a tiempo. A pesar de ello el espectáculo debe comenzar, pues sus amiguitos esperan. Como Gari sabe hacer algo de magia, intenta hacer alguna cosa, pero finalmente, supituki, y con ayuda Montxo y Joselontxo ofrecerán un espectáculo lleno de magia y carcajadas. Lo que no faltará tampoco en este espectáculo será la participación de los/las espectadores/as. Al final, por fortuna, y supituki, todo se ha arreglado y gozaremos con la risa, la música, la participación y las carcajadas que nos provocarán los payasos Gari, Montxo y Joselontxo.









# Marta Soto

**A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 12€**

Etorkizun oparoa izan lezakeen musikari bat da, nortasun propioa, ahots karismatikoa eta gaitasun neurtezina dituena.

Marta Sotok, 19 urte baino ez dituela, milaka harpidedun ditu bere sare sozialetan, milioi bat bisita baino gehiagoko bideoak eta doan lekura doala berarekin doazen jarraitzaileak, agertoki bakoitzean bere abestiak kantatzen dituztenak.

Nos encontramos sin duda ante la nueva promesa de la música, con una personalidad propia, una voz carismática y un talento inconmensurable.

Marta Soto con tan sólo 19 años, cuenta ya con miles de subscriptores en sus redes sociales, con videos que sobrepasan el millón de visitas y con una base de fans que le siguen allá donde va y que tararean sus canciones en cada uno de los escenarios.





# Alizia Lurralde Miresgarrian.

Glu Glu Produkzioak

**A las 17:00ean | Sarrera/Entrada: 4€**

Egilea **/ Autor: Galder Pérez** Zuzendaria **/ Dirección: Maitane Zalduegi-Viar** Antzezleak **/ Intérpretes: Itxaso Quintana, Iñaki Maruri, Andrea Covadonga eta Olatz Ganboa** Iraupena **/ Duración: 60 min.**

Lewis Carrollen "Alizia lurralde miresgarrian" ipuinaren haur antzerkirako moldaketa aurkeztuko du Glu Gluk. Ipuin klasikotik abiatuta gaur egungo haurrei zuzenduta, ikastearen edertasunaz eta beharraz arituko da antzezlana. Kantu, dantza eta antzerkiarekin Alizia neska gazteak hainbat pertsonaia xelebre eta dibertigarri ezagutuko ditu. Haiei esker onartuko du, eskolan erakusten dioten bezala, matematika, ingurugiroa, elikadura eta hizkuntzak ikasteak sekulako onurak ematen dizkigula. Eta, gainera, dibertigarria ere bada.

Glu Glu presenta esta adaptación al teatro infantil del cuento "Alicia en el País de las Maravillas" de Lewis Carroll. Partiendo del cuento clásico, se dirige a las niñas y niños de hoy en una obra de teatro que trata de lo hermoso y necesario que es aprender. A través de la canción, el baile y el teatro la joven Alicia conocerá personajes peculiares y divertidos. Gracias a ellas aceptará, tal y como le enseñan en la escuela, que aprender matemáticas, medio ambiente, alimentación e idiomas nos proporciona grandes beneficios. Y que además es divertido.



# Sarrerak | Entradas

**Sarrerak aurretik erosteko: Irailaren 12tik**

**BBK-ko orotako kutxazainetan** edo **www.bbk.es**

- **Lobiano Kultur Gunean**, Goienkale 10
  Astelehentik ostiralera 9:00etatik 21:00etara

**Venta de entradas anticipada: Desde el 12 de septiembre**

- **En los cajeros multiservicios** de la BBK o en **www.bbk.es**
- **En Lobiano Kultur Gunea**, Goienkale 10
  De lunes a viernes de 9:00h a 21:00h

Helbidea | Dirección

**Iparragirre z/g - Ermua - 48260 (Bizkaia) | Tfn. 943 708 700**
**www.ermua.es/ermuantzokia**
**ermuantzokia@udalermua.net**

AYUNTAMIENTO DE ERMUA
*ERMUKO UDALA*

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ermua**punto**cultural
*ermua**puntu**kulturala*

ermuantzokia.